# OLEŔKI-

## UDABAŔIJAN

UTAŔSUS

Negu otza igesi dua;
basuetan lats-eŕtzetan
azten dira loratxubak
Dana pozkiro benetan
itxi dau, egun onetan
udabaŕi alaitsubak.

Oŕtze oztiña, argijagua;
landak baŕiz, oŕlegijak.
Lenengoz Jaunaŕtzen duan
neska antzian, madarijak,
loretan, zuri-zurijak
basetxe zaŕen onduan.

Aretxak eta txopuak
jantzi dauz udabaŕijak
oŕi txiki biguntxubaz;
eurekaz, lasteŕ, txorijak
ostenduko dau kabija
abesten txio gozuak.

Ortze intxauŕa ta gastaña
begiratu, ze iŕun dagoz.
Neguba igesi da, baña,
eztira ageŕtzen pozago.
¿Eztabe, beraz, gurago
igasko itxura liraña?

Zugatz oŕek dagoz iĺik.
Eguzkiaren mosubak
eztauz ipinten bixirik.
Aizkoraz jauŕti ta eguŕak
egin. Datoŕen neguban
ezta egongo otzen bilduŕik.

Ez olakorik, gastia,
erantzun dautso, bere aŕak;
zugatz oŕeik bixi dira.
Oŕiz beterik oŕilan
ikusiko dozuz, baŕa,
igali edeŕaz uŕilan.

Geure abeŕitik neguba
igesi da. Udabaŕijak
etoŕita, zoruntsubak
egin gaŕu. Euzko ikuŕiña
axiaz zabalik zibuka
ara, zelan dabilan.

Baña beste anai oŕeik
abeŕtzaliak eztira·
Ezta indaŕtzen, ba, daruen
euzko odola bijotzian.
Maŕe ezpa-dabe abeŕija
¿goŕotau, guk ba, bijotzez?

Ez guk olakorik diñot.
Ixan ezkero euzkotaŕak
itxaŕtuko dabez iñoz
abeŕijaren diaŕak,
eta bere aldez biaŕa
zintso egingo dabe ondiño.

Anayak dira; ez aŕotzak
Geure bijotz maŕasunaz
aŕtu daiguzan gogo otsak.
Loŕtuteko azkatasuna,
ta "abeŕijaren" zoruna,
biaŕ dira oŕen bijotzak.